

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

ForoSalud-ek paziente, elkarte eta profesionalen proposamenak bilduko ditu Osasun Mentalaren Plan Estrategiko berria definitzeko

Asteartean egingo den eztabaida-saioan, posta elektronikoaren eta sare sozialen bitartez parte hartzeko aukera izanen da

Astelehena, 2018.eko irailak 17

Osasun Mentaleko hogeita hamar paziente inguruk eta Erizaintza, Psikiatria, Psikologia, Terapia Okupazionala eta Gizarte Lanaren arloetako ordezkariak parte hartuko dute astearte honetan ForoSalud-en edizio berri batean. Oraingoan, Osasun Mentalaren arloko asistentzia hobetzeko proposamenak bildu eta eztabaidatzea izango du helburu. [Saio hau](#) aurtengo urte

bukaeran onartu behar den Nafarroako 2019-2023rako Osasun Mentalaren III. Plan Estrategikoa definitzeko abiarazi den parte-hartze prozesuaren barruan antolatu da.

Eztabaidan parte hartuko duten gizarte erakundeen artean, honako elkarte hauen ordezkariak izanen dira: Osasun Mentalerako Nafarroako Elkarte (ANASAPS), Meiorana Aniztasun Mentala duten Pertsonen Elkarte eta Los Perro Verde Elkarte.

Eztabaida formatu hau Osasun Departamentuak bultzatu du osasun-politika publikoetan herritarren parte-hartzea sustatzeko eta erabiltzaileei nahiz profesionali ikuspuntuak partekatzen laguntzeko. Saioa astearte honetan egingo da, irailak 18, 16:30etatik 20:00etara bitartean, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuan, Iruñean (Leire kaleko 15ean). Eztabaida presentzian parte hartzeko ekarpenak bidali ahalko dira forosalud@navarra.es posta elektronikoaren bitartez, Twitter ([#ForoSaludNa](#) traola) eta Facebook (www.facebook.com/SaludNavarra) sare sozialak erabiliz eta 848 428836 eta 848 423790 telefonoetara deituz.

Osasun mentalaren eskasia, honi dagozkion modalitate guztietan, gizarte garatuetako arazorik garrantzitsuenetakoa bilakatu da, izan ere, osasun mentala funtsezkoa da herrialdeen giza-garapenerako nahiz



Osasun arloko profesionalak, berrikitan Osasun Mentalaren Plan berriari buruz egindako eztabaida-saioetan.

garapen sozial eta ekonomikorako. Nahasmendu mentalak dituzten pertsonen estigmatizazioa saihesteko eta haiei zuzendutako laguntza-zerbitzuen kalitatea hobetzeko, beharrezkoa da, Osasun Departamentuari lortu beharreko helburua eta horra iristeko bideak bistaratuko dizkion Osasun Mentalaren Plan Estrategiko berria osatzea. Plana herritarrek antzemandako beharretara egokitzeko, nahitaezkoztat jo da haien ikuspegia ere aintzat hartzea, eta horrexen kariaz abiatu dira parte hartzeko prozesua eta honi loturiko ForoSalud ekimena.

Adikzioak, psikogeriatría, nahasmendu mental larria eta arrunta

2019-2023rako Osasun Mentalaren Plan berriaren erronken artean aipatzekoa da garrantzi handiagoko prozesu asistentzialetan aurrera egiteko dagoen beharra; hala nola, adikzioetan, psikogeriatrian, nahasmendu mental larrian eta nahasmendu mental arruntean. Plana herritarrek hautemandako beharretara egokitzeko, nahitaezkoztat jo da haien ikuspegia ere aintzat hartzea, eta horrexen kariaz abiatu dira parte hartzeko prozesua eta honi loturiko ForoSalud ekimena.

Pazienteek, senideek eta profesionalak Foru Komunitatean antzeman eta Osasun Departamentuak Osasun Mentalaren arloko sustapenean, prebentzioan eta arretan bidera ditzakeen beharrak identifikatzea izango da saioaren helburua. Horrez gain, lankidetzaren bidezko erlazio-esparru baten barruan paziente eta profesionalen arteko harremanak finkatzeko mekanismoak aztertuko eta eritasun mentala duten pertsonen estigmatizazio soziala murrizteko ekintzak proposatuko dira. Horrela, partaide guztien artean, Osasun Mentalaren III. Plan Estrategikoa nahiz eskainitako zerbitzuen kalitatea hobetzeko proposamenak landuko dira, kolektibo interesdunen ikuspegia txertatuz.

Adituen panela eta taldekako eztabaida

Hauxe izango da edizio honetan parte hartzeko oinarrizko galdera: “Zer proposatu nahi diozu Osasun Departamentuari Nafarroako herritarren Osasun Mentala hobetzeko?”. Saioa parte hartzeko metodologia baten arabera garatuko da: lehenengo txandan, foroan parte hartuko duten pertsona guztiak aurkeztuko dira, eta ondoren, esperientziak azaldu eta eztabaidagaiari buruzko bideo bat eskainiko da.

Eztabaidaren bigarren zatian hobetzeko proposamenak aztertuko dira, Cristina García erabiltzaileak, Iñaki Arrizabalaga psikologo klinikoak, Virginia Basterra psikiatrak eta familien ordezkari José Ramón Vidánek planteatuko duten gogoeta-paneletik abiatuta. Lau agerraldi hauen ondoren, eztabaida talde txikietan egingo da, eta gero, ondorioak partekatu eta baterako eztabaidan aztertuko dira.

Saioaren buruan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentalaren arloko kudeatzaile Begoña Flamariquek azken ondorioak emango ditu ezagutzera, Foroa ixteko. Ondorio horiek eta sare sozialen bidez nahiz parte hartzeko ireki diren gainerako kanalen bitartez bilduriko ekarpenik garrantzitsuenak [ForoSalud-en webgunean](#) kontsultatu ahalko den amaierako dokumentu batean jasoko dira.

Inkesta eta eztabaida-saioak profesionalekin

Osasun Mentalari eskainitako ForoSalud-en edizio berri honi gehitu behar zaizkio esparru honetako estrategia sanitarioa definitzeko abiarazi diren [parte hartzeko gainerako neurriak](#); hala nola, herritar guztiei zuzendutako inkesta eta profesionalekin batera antolatutako saioak. Parte hartzeko ireki den prozesuaren egoera [foru Exekutiboaren Gobernu Irekiaren webgunean](#) jarraitu ahalko da, eta bertan egingo da, halaber, erakusketa publikoaren bukaerako fasea behin-betiko onartu baino lehen.

Joan dem abuztuan eztabaida-saioak antolatu ziren Nafarroako Osasun Mentalaren sareko profesionalentzat, kategoria desberdinetako hogeita hamar pertsona ingururen parte-hartzeaz. Lan egiteko metodologia taldekako eztabaida izan zen, garrantziaren arabera hautatu eta hobetzeko aukera eskaintzen zuten hainbat gai aztertzeko, eta horrekin batera, teknika dinamikoak erabiliz, planteatutako proposamenei buruzko adostasunak eta desadostasunak partekatu ziren.

Osasun Mentaleko Gerentziak parte hartzeko prozesuan bildutako proposamen guztiak aintzat hartzeko eta aztertzeko konpromisoa hartu du. Behin III. Plan Estrategikoa landuta, urte hondarrean,

informazioa itzultzeko saioa antolatuko da, parte hartzaileei bildutako ekarpenak nola erabili eta kudeatu diren jakinarazteko xedez, proposamenak onartu ala baztertu izanari buruzko argudioak eskaintzeaz gain.